



## DERIOKO UDALA

### APAREJADORE-ARKITEKTO TEKNIKOAREN LANPOSTU BAT KONTRATATZEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA

#### Lehenengoa.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da aparejadore-arkitekto teknikoaren (Eraikuntza Ingenieritzako Gradua) lanpostu BAT aldi baterako kontratatzea, Derio udalerriko pertsonen enplegarritasuna sustatzeko. Modu horretan, ekainaren 15eko 219/2020 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren bidez onartutako 2020 Enplegu Plana garatuko da. Dekretu hori 2020ko irailaren 15eko 330 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren bidez aldarazi zen.

|                             |   |
|-----------------------------|---|
| Postuaren izena             | Aparejadore-Arkitekto teknikoa, eraikuntza ingeniariatzako gradua   |
| Postu-kopurua               | 1   |
| Erregimena                  | Obrak zehaztutako iraupena duen aldi baterako kontratua: 9 hilabete<br>Kontratuak probaldi bat izango du.   |
| Ordainketa                  | Derioko Udaleko langileei aplikatu beharreko indarreko hitzarmenean ezarritakoaren arabera.   |
| Exijitu ahal den titulazioa | Aparejadore-Arkitekto teknikoa, eraikuntza ingeniariatzako gradua   |
| Hautaketa-sistema           | Lehiaketa   |
| Agindutako eginkizunak      | — <i>Egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa egitea, beharren programa eta ekintza-planak egitea, baita, hala badagokio, horiek gauzatzea eta horien jarraipena egitea ere, "Espazio eta ondare publikoa modu efizientean eta arrazoizko moduan hobetzea, kontserbatzea eta mantentzea" helburu estrategikoko ekintzei eta zereginei erantzuteko, besteak beste, honako hauei dagokienez: lorezaintza, bide-garbiketa, argiteria, hondakinak, saneamendu- eta</i> |



## **DERIOKO UDALA**

|  |   |
|--|---|
|  | <p><i>hornidura-sarea, landa-bideak, bideak eta espaloiak, seinaleztapena, haur-jolasak eta hiri-altzariak, eraikinak, lokalak, orubeak eta titulartasun publikoko lursailak.</i></p> <p>— <i>Kostuen analisia eta azterketa egitea, espazio publikoa okupatzeagatiko tasak ezartzeko.</i></p> <p>— <i>Nagusiek agindutako beste guztiak eta lanpostuaren izaera dela-eta sortutakoak</i></p> |
|--|---|

### **Bigarrena.- Kontratuaren modalitatea**

Aldi baterako kontratazioa izango da kontratuaren modalitatea, 9 hilabetez, eta lanaldia osoa (35 ordu astean). Egin beharreko lana Derioko udaletxean, beste udal-instalazio batzuetan eta, nolnahi ere, Derio udalerrian egingo da.

### **Hirugarrena.- Izangaien betekizunak**


1. Hautaketa-probetan parte hartzeko, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 56. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dira:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 57. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

b) Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

c) HEMEZORTZI (18) urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

d) Diziiplina-espedita bidez edozein administrazio publikoren edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organoren zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judicial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutu edo berezirik ez izatea, funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-kontratuko langileen kasuan betetzen zituzten funtzioen antzekoak betetzeko, baldin eta baztertuta



## **DERIOKO UDALA**

edo desgaituta badaude. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina-zehapenik edo zehapen baliokiderik ez izatea, bere estatuan, baldintza berberetan, enplegatu publikoari sarbidea eragozten dionik.

e) Oinarri hauetan exijitutako titulazioa izatea.

f) Langabezia-egoeran egotea, eskuragarritasun osoarekin, eta kontratazioaren unean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda edo inskribatuta eta alta emanda egotea.

g) 2020ko urtarrilaren 1a baino lehen Derion etengabe erroldatuta egotea. Ofizioz egiaztatuko da.

h) Legezko ezintasuneko edo bateraezintasuneko kausaren batean sartuta ez egotea, Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera.

Deialdian parte hartu nahi dutenek betekizun guztiak beteak izan beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako, eta betekizun horiei eutsi behar diete hautaketa-prozesu osoan.

### **Laugarrena.- Lehiaketa fasea**

Izangaiei lehiaketa-fasean baloratuko zaizkie alegatzen dituzten merezimenduak, eta lehentasuna emango zaie egoera ahulenean dauden kolektiboei, besteak beste, emakumeei eta gazteei. Epaimahai Kalifikatzaileak emango du puntuazioa, baremo hauen arabera:

#### **A.- Antzinasun-denbora langabezian: gehienez 1 puntu.**

Langabezian emadako antzinasunaren arabera, honako puntu hauek emango dira:

|   |           |
|---|-----------|
| 12 hilabetetik gorako antzinasuna langabezian       | 1 puntu   |
| 6 eta 12 hilabete bitarteko antzinasuna langabezian | 0.5 puntu |

Oharra: Langabezian emandako denbora zenbatzeko, kontuan hartuko da azken kontratazioaren amaiera-datatik igarotako denbora (kontratazio horrek 30 egun jarraitukoa izan beharko du gutxienez, hau da, egun solteetako kontratuak edo 30 egunetik beherakoak ez dira kontuan hartuko igarotako denbora zenbatzeko). Denbora hori da Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak 2020ko ekainean egindako lan-bizitzaren txostenean agertzen dena.



## **DERIOKO UDALA**

Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak 2020ko irailean emandako lan-bizitzaren txostenaren bidez egiaztatuko da.

### **B.- Euskara jakitea: gehienez 3 puntu**

Euskararen ezagutza-maila egiaztatzen duen titulazio ofizialaren arabera, honako puntu hauek emango dira:

|    |           |
|----|-----------|
| C1 | 2 puntu   |
| B2 | 1 puntu   |
| B1 | 0,5 puntu |

Oharra: Aurkeztutako tituluen artean, euskararen ezagutza-maila handienekoa baino ez da baloratuko.

Onartutako titulu ofizialen bidez egiaztatuko da.

### **C.- Lehentasuna emakumeentzat: 1 puntu**

### **D.- Lehentasuna gazteentzat, gehienez 3 puntu**

|                               |         |
|-------------------------------|---------|
| 30 urtera arte                | 3 puntu |
| 30 urtetik gora 35 urter arte | 2 puntu |


### **E.- Esperientzia antzeko lanpostuetan. Gehienez 2 puntu.**

|                               |           |
|-------------------------------|-----------|
| 36 hilabete baino gehiago     | 2 puntu   |
| 24 eta 36 hilabete bitartean  | 1 puntu   |
| 12 hilabetetik gora 24ra arte | 0,5 puntu |

Lan-kontratu bidez egiaztatuko da, eta bertan berariaz adieraziko da deialdiaren xedearekin lotutako lanpostua.

### **Bosgarrena.- Eskabideak aurkezteko modua eta epea**

Eskabideen bitartez izangaiek hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatuko dute, eta, xede horrez, deialdiaren oinarrietan adierazitako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela



## **DEIOKO UDALA**

azalduko dute. Horiek Alkatetzari zuzenduko zaizkio eta herritarrentzako arreta bulegoan (udaletxeko GERTUAN bulegoan: Herriko Plaza 3) aurkeztuko dira 8:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, behar bezala beteta.

Eskaerak **I. eranskin** ere duaren arabera egingo dira eta honako agiri hauek ere aurkeztuko dira nahitaez:

- Eskaera-inprimakia beteta eta sinatuta. (I. eranskina)
- Nortasun agiriaren edo atzerritarren identifikazio-zenbakiaren fotokopia, eta, bidezkoa bada, lanerako eta egoitzarako baimenena.
- Lan-bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra 2020ko irailean egindakoa.

Gainera, lehiaketa-fasean merezimenduak baloratzeko, nahi duten izangaiek **BORONDATEZ** hurrengo AGIRI hauek aurkeztu ahal izango dituzte:

- Euskararen ezagutza-maila ziurtatzen duen titulu ofizialaren fotokopia.
- Alegatzen diren kontratuen fotokopia.

Ezingo da merezimenduak justifikatzeko agiririk aurkeztu epea amaitutakoan, baldin eta parte hartzeko eskabide-orrian alegatu ez badira.

Eskabide-orria aurkeztu eta hautaketa-prozesuan parte hartzeak ez dio inolako eskubiderik emango izangai hautatuari, baldin eta baldintzak betetzen ez baditu edo aurkeztutako agirietan zehaztasunik eza edo faltsutasuna antzematen bada.

Izangaiek emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua zein Administrazio honetan bitarteko langileak izendatzeko sortzen diren lan-poltsak kudeatzeko baina ez da erabiliko. Nolanahi ere, fitxategia erabili eta funtzionatzeko orduan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak (2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalak tratatu eta datuen zirkulazio libreaki dagokionez, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) xedatutakoa kontuan hartuko da.

### **Seigarrena.- Hautaketa-prozesua**

Epaimahai Kalifikatzaileak egingo du hautaketa denboraz eta formaz behar bezala eta nahitaezko agiriekin batera jaso diren eskaeren artean. Epaimahaiak izangaiek aurkeztutako agiriak barematuko ditu, oinarri hauetan ezarritako irizpideen arabera.

Prozesua behar bezala gara dadin, Epaimahai Kalifikatzaileak eskumena izango du sortzen diren zalantzak argitzeko eta beharrezkoak diren erabakiak hartzeko. Beharrezkoa bada, izangaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, akatsak



## **DERIOKO UDALA**

zuzentzeko eta erreklamazioak egiteko epea eman daiteke.

### **Zazpigarrena.- Hautaketa-sistema eta prozesuaren garapena**

Hautaketa-prozesuak lehiaketa-fase bat izango du. Azken emaitza parte-hartzaileek lehiaketa-fasean lortutako puntuen batura izango da. Berdinketa egonez gero, berdinketa hausteko lehenengo irizpide gisa, lehenasuna emango zaie emakumeek aurkeztutako hautagaitzei, eta bigarren irizpide gisa, gazteei. Hala ere, berdinketak jarraitzen badu, lehenasuna izango du gazteenaren hautagaitzak eta, azkenik, zozketa egingo da.

### **Zortzigarrena.- Aurkezteko epea**

Eskabide-orriak urriaren 2ra arte aurkeztu ahal izango dira.

### **Bederatzaigarrena.- Izangaiak onartzea**

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Alkatetzak ebazpena emango du, hautaketa-prozesuan pertsona onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko.

Behin-behineko zerrenda argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasi eta 3 laneguneko epean izangaiek zuzenketa- edo erreklamazio-eskabideak aurkeztu ahal izango dituzte hautaketa-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendaren aurka. Epea amaitutakoan, eskubide hori indargabetu eta izangaien zerrendatik kanpo geratuko dira, bidezkoa bada.

Azkenik, hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko da lortutako puntuekin. Halaber, lanpostuak betetzeko hautatutakoen behin-behineko zerrenda argitaratuko da.

Hautatuak izan ez diren pertsonak "erreserba-zerrendan" geratuko dira.

Zerrenda guztiak, behin-behinekoak eta behin betikoak, [www.derikoudala.net](http://www.derikoudala.net) webgunean eta Egaz Txorierriren iragarki-taulan argitaratuko dira.

### **Hamargarrena.- Eapimahari Kalifikatzailea**

Eapimahari Kalifikatzailea kide anitzeko hautaketa-organo gisa eratuko da, eta honako



## **DERIOKO UDALA**

hauek osatuko dute: Egaz Txorierriko teknikari batek eta Derioko Udaleko langile funtzionarioek. Epaimahai Kalifikatzaileko kideen izendapen zehatza barne-mailan egingo da. Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa.

Epaimahaikideek ez dute esku hartuko eta udalburuari jakinaraziko diote Sektore Publikoko Erregimen Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek ezetsi ahal izango dituzte aipatutako legearen 24. artikularekin bat etorriz, aurreko artikuluan aurreikusitako gorabeheraren bat dagoenean. Kasu horretan, ordezkoko bat izendatuko da.

Epaimahai Kalifikatzaileari dagokio hautaketa-lehiaketa garatzea, baloratzea eta kalifikatzea. Epaimahaikideak autonomia osoz arituko dira euren zuhurtzia teknikoan; prozeduran gardentasunaren eta objektibotasunaren erantzule izango dira, baita proben isilpekotasunaz ere. Halaber, deialdiaren oinarriak eta hautaketa-prozesurako jarritako epeak zorrotz beteko dituzte.

Beharrezkotzat jotzen bada, Epaimahai Kalifikatzaileak erabaki ahal izango du aholkulari adituak bertaratzea bilkuretara. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan laguntza eman besterik ez dute egingo, eta horien arabera arituko dira elkarlanean hautaketa-organoarekin. Beraz, hitza izango dute, baina botorik ez. Epaimahai Kalifikatzaileak, egokitzat jotzen badu, epe bat eman dezake akatsak zuzendu eta erreklamazioak egiteko, izangaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren.

Epaimahai Kalifikatzaileak ebatziko ditu, inolako apelaziorik gabe, deialdi honen oinarriak aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, baita aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoak ere.

### **Hamaikagarrena.- Erreserba-zerrendaren funtzionamendua**

Erreserba-zerrendako kideek, eratzeko erabili den hautaketa-prozesuan lortutako puntuak kontuan hartuta, zerrendan dagokien postua izango dute. Hala, zerrendako postuarekin batera, puntuak azalduko dira.

Etorkizunean aldi baterako hutsak bete behar direnean, kontratazio horiek egite aldera, erreserba-zerrenda lan-poltsa osatzeko erabiliko da, eta pertsoneri zerrendan ezarritako hurrenkerari jarraikiz deituko zaie. Lan-poltsaren funtzionamenduak aukeraberdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak beteko ditu.